

## TXANTXIKU AISIALDI TALDEA

Badator ikasturte berria eta horrekin batera Txantxiku Aisialdi Taldea martxan da ! Desberdina izan arren aurten ere, ekintzaz beteriko urtea antolatzeke eta elkar ezagutu zein ondo pasatzeko prest gaude. Baina, zer da Txantxiku?

Txantxiku Deustualdeko aisialdi taldea da, Berbaizu Euskara Elkartearen baitan dagoena eta urtero, 8 eta 17 urte bitarteko ume zein gazteentzako ekintzak antolatzen dituena. Gure helburu eta baloreak anitzak diren arren, garrantzia ematen diogu euskararen erabilera eta zabalpenari. Aisialdi euskalduna bultzatzeko asmoz, mendi irteerak, asteburu pasak Euskal Herriko txoko ezberdinetara, udaberriko irteera, eguneko ekintzak, udalekuak... eta beste hainbat jarduera antolatzen ditugu. Elkarrekin ondo pasatzeko, noski!

Ezagutu nahi gaituzula? Ba ez galdu denbora! **Elkarrekin egoteko aukera izango dugu Urriaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, Euskaldunako eskaileretan geratuta egingo dugun aurkezpen jaian!** Bertan, Txantxiku dastatzeko, usaintzeko, sentitzeko, eta batez ere disfrutatzeke aukera izango duzu! Urriaren 19an gurasoentzako bilera telematikoa antolatu dugu 19:30etan, Jitsi plataformaren bidez. Hurrengo estekaren bitartez honetara batu ahal izango zarete matrikulazioari buruzko informazioa jaso eta beharrezkoak diren zalantzak argitzeke: <https://meet.jit.si/TxantxikuAisialdiTaldea>

Ez galdu aukera eta zatoz gurekin mundua euskalduntzera!

**IKU IKU TXANTXIKU !**



## TXANTXIKU AISIALDI TALDEA

Badator ikasturte berria eta horrekin batera Txantxiku Aisialdi Taldea martxan da ! Desberdina izan arren aurten ere, ekintzaz beteriko urtea antolatzeke eta elkar ezagutu zein ondo pasatzeko prest gaude. Baina, zer da Txantxiku?

Txantxiku Deustualdeko aisialdi taldea da, Berbaizu Euskara Elkartearen baitan dagoena eta urtero, 8 eta 17 urte bitarteko ume zein gazteentzako ekintzak antolatzen dituena. Gure helburu eta baloreak anitzak diren arren, garrantzia ematen diogu euskararen erabilera eta zabalpenari. Aisialdi euskalduna bultzatzeko asmoz, mendi irteerak, asteburu pasak Euskal Herriko txoko ezberdinetara, udaberriko irteera, eguneko ekintzak, udalekuak... eta beste hainbat jarduera antolatzen ditugu. Elkarrekin ondo pasatzeko, noski!

Ezagutu nahi gaituzula? Ba ez galdu denbora! **Elkarrekin egoteko aukera izango dugu Urriaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, Euskaldunako eskaileretan geratuta egingo dugun aurkezpen jaian!** Bertan, Txantxiku dastatzeko, usaintzeko, sentitzeko, eta batez ere disfrutatzeke aukera izango duzu! Urriaren 19an gurasoentzako bilera telematikoa antolatu dugu 19:30etan, Jitsi plataformaren bidez. Hurrengo estekaren bitartez honetara batu ahal izango zarete matrikulazioari buruzko informazioa jaso eta beharrezkoak diren zalantzak argitzeke: <https://meet.jit.si/TxantxikuAisialdiTaldea>

Ez galdu aukera eta zatoz gurekin mundua euskalduntzera!

**IKU IKU TXANTXIKU !**

